

GOI MAILAKO PRESTAKUNTZA ZIKLOETAKO IKASKETENGATIK KREDITUAK AITORTZEKO ARAUTEGIA, EKONOMIA ETA ENPRESA FAKULTATEKO

Graduko ikasketa planetako kredituak transferitu eta aitortzeko, kontuan hartuko da **Graduko Ikasketetan Kredituak Transferitzeko eta Aitortzeko Arautegian** xedatutakoa (Gobernu Kontseiluak onartua 2012/05/16an; 2012/06/19ko EHAA, 119. zk.), eta honakoa dio 8.1 artikuluan:

Oro har, ikasketa osoak bakarrik aitortu ahalko dira; nolanahi ere, honako hauek ere aitortu ahalko dira: (...) Lanbide Heziketako goi teknikarien titulu ofizialak (...).

Araudiarekin bat etorrira, Ekonomia eta Enpresa Fakultateko Batzarrak, **2018ko martxoaren 27an egindako bileran**, Akademia Antolakuntzako Batzordearen proposamenari jarraituz, goi mailako heziketa zikloetako kredituak aitortzeko baldintzak onartu zituen, eta, hain zuzen ere, honakoak dira irizpideak:

- **Goi mailako teknikarien titulua (goi mailako prestakuntza zikloa)** dutenei 30 ECTS aitortuko zaizkie, baldin eta aitortpen automatikorako taulan (eranskinetako) zehaztutako tituluetakoa bat bada, eta, betiere, UPV/EHUko gestio arautegian zehaztutako epearen barruan egin bada eskaria.
- Goi mailako prestakuntzako zikloko titulua ez badago aipatutako taulan zehaztuta, Akademia Antolakuntzako Batzordeak aztertuko du eskaria, eskuratutako gaitasunak ikastegian ematen diren graduetakoz egokiaz egokiak diren zehazteko.
- Kreditu guztiak batera eta behin baino ez dira aitortuko, graduko ikasketetarako lehenengo matrikula egiten denean.
- Irakasgaien kasuan, kredituak aitortuz gero, 5,5 kalifikazioa izango du irakasgaiak (irakasgai guztietarako berdin).
- **Aurkeztu beharreko dokumentazioa**
 - Eskaera orria
 - Prestakuntza zikloko titulua edo/eta espediente akademikoa